


ARGITALETXE BERRIA KALEAN

-ZKO




«Ez dira gutxi, hala ere, *-ko*, bere antzeko *-to* eta *-zko* eratorrieekin batera heriotzaren loa jasaten duten hitzak; edota akaso larba egoeran datza, literatura kementsu batek bizi berria komunikatu dakion zain.»

«Son, sin embargo, no pocas las palabras en que *-ko*, con su similar *-to* y su derivado *-ko*, *-zko*, duerme el sueño de la muerte; o acaso yace en estado de larva, esperando a que una vigorosa literatura le comunique nueva vida.»

«Isse: nombreux sont cependant les mots dans lesquels *-ko*, son similaire *-to* et son dérivé *-sko*, *-zko*, dorment le sommeil de la mort, ou peut-être reposent-ils à l'état de larve, attendant qu'une vigoureuse littérature leur communique une nouvelle vie.»

R. M. de Azkue, Diccionario Vasco-Español-Francés, 1905, Vol.1, p. 493



-zko, Tractora Koop. E. artisten kooperatibaren baitan sortu den egitasmu bat da. Bere helburua, artearen eta bestelako ezagutza diziplinen artean kokatzen diren lanak argitaratzea eta zabaltzea da.

-zko argitaletxeak R.M. Azkuek bere hiztegia osatzeko erabili zuen metodoa bere egiten du. Landa lana eta edizio lanaren uztarketatik sortzen diren obren bidelagun, jatorri anitzetako zerak inguratu eta antolatzen dituzten ezagutza sentikorrek artikulatu nahi ditu.

-zko atzizkia, gauzak nolakoak diren esateko erabiltzen dugu, zerez eginak edo zerekin eraikiak diren adierazteko. Gauzak zein materialekin osatuak diren arabera, halako izenlagunak sortzen ditugu, mundua materialki deskribatuz. Aldi berean, materialek hizkuntza sortu eta eraberritzeko duten ahalmenaren berri ematen digun atzizkia da -zko.

Teknika eta etnikaren arteko bidegurutzei erreparatzeko, objektuen ontologiak gogoeta egiteko eta gailu eta artefaktuen sorkuntza, erabilera eta eraldaketei arrastoa hartzeko borondatea du -zko argitaletxeak.

ARGITALETXEAREN AURKEZPENA:

Abenduaren 7an, 10:30tan

DURANGOKO AZOKAKO Areto Nagusian

Info +
info@zko.tools
679396879 / 636852962

www.zko.tools